

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguaztena / 2001eko abenduaren 5a / 475. zenbakia



**Bergarako Udalak ere  
lagunduko du Goiena**

**GOITB etxe denetan ikusiko dugu**

**SASKIBALOA: SENIOR TALDEA IGOERA FASERA/9 • MUSIKA: HARPA ETA FLAUTA KONTZERTUA BIHAR/10**





Ibargarai 36-38 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.





## ATREBENTZIAEZPADA/ Durangoko azokara juteko ohiturarik badaukazu? Eta irakurtzeko?



**NAGORE DOS SANTOS**  
26 urte

Batzuetan jun izan naiz; ezer erosteke etorri izan naiz batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, liburu- ren bat edo beste zoezer erosi izan dot. Ez daukat irakurtzeko ohiturarik.



**IÑIGO MUNDUATE**  
24 urte

Ez, sekula ez naiz egon; urruti geratzen jat Durango. Bestela be ez dot liburu askorik erosten, euskal literaturan pixka bat galduta nago. Diskuak, bai, diskuak erosten dittut.



**LOLI HEIS**  
30 urte

Ez, ez daukat ohiturarik juteko; behin bakarrik egon naiz, eta kasualidadez, gainera. Urtian zihar be ez dot libururik erosten, irakurtzeko denporarik be ez daukat-eta.



**PEDRO SASIETA**  
43 urte

Ez, gainera, sekula be ez naiz egon Durangoko azokan. Bestela, urtian zihar erosten dittut liburuak eta diskuak. Hillabetero liburu bat, behintzat, irakurtzen dot.



**ITSASO LOUYEST**  
18 urte

Ikastolatik urtero juten giñan, eta gustatzen jaten, baiña oin, ahal dotenian bakarrik. Dirua euki ezkerro, zoezer erosten dot. Bestela, irten diran liburu eta disko berriak ikusi.



**J.R. AZKARATE-ASKASUA**  
53 urte

Ez; pare bat aldiz egonda nago, baiña ohiturarik ez daukat. Gainera, zubixa zela izaten dan, askotan kanpora juten gara. Bestela be ez daukat irakurtzeko ohitura haundirik.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK MUGERTZAN APARKATZEKO BELDURREZ** Irakurle batek hots egin digu. Mugertzan, erreka ondoan dagoen zabalgunean aparkatzen du maiz autoa. Beti tentuz. Izan ere, aparkalekuak ez du inongo hesirik, eta autoa pixka bat aurreratuz gero, erreka erortzeko arriskua dago. Udalean ere azaldu du kezka, baina ez ei diote, oraindik, behintzat, jaramonik egin. /MONIKA BELASTEGI

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /9

KULTURA /10

### Goiena Kooperatiba

Bergarako Udalak Goienan parte hartuko duela iragarri du Gallastegi alkateak.

### Bergara UDARI gailendu zaio

Preferente mailako futbol taldeak 5-2 irabazi zion zapatuan Aretxabaletari Agorrosinen.

### Saxofoi kontzertua

Saxteiz saxofoi laukoteak emanaldia egingo du zapatuan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

## ASTEKO DATUA

# 5

### BERGARAK UDARI SARTUTAKO GOLAK

Joan den zapatuan Agorrosinen jokaturako partiduan, Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak 5 eta 2 irabazi zion Aretxabaletako taldeari. Bergararrak sailkapeneko 9. tokian daude.

## BESTEKESESANA

“

Erramilete koloretsua aurkitu dezakegu egungo bertsolaritzan. Langile soilak, ikasleak, lizentziatuak, gizonezkoak eta emakumezkoak. Bai, bai, emakumezkoak. Antzina, antzinako bertsolari bateri entzuna da, “emakumeak balkoian kantari hasten diren uen bertsolaritzak eman beharreko guztia emanda izango duela”.

Zorionez, gauzak ez dira horrela, beste modu batera baizik. Gaur egun Maialen Lujanbio batek, beste batzuen artean, egiten duen ekarpena aberatsa da. Bertsolaritza klasikoak zuen freskotasuna gaurko “laborategiko kimikak” galduko ote duen beldur denik bada. Baina gure uste apalean beldur horrek ez du fundamentu gehiegirik.

ANDRES OSA “SAKONA”  
Deia/01-11-26

## BERAIEK DIÑO/ Nora Palmitano



*Harry Potter*

Euskal Herrian *Harry Potter*ren liburuek ez dute lortu, oraindik, munduan lortu duten besteko arrakastarik. Zalantzarik gabe, egindako publizitatea ez da heldu hemengo gaztetxoengana. Ezin da bestela izan, izan ere, hemengoak beste gazte guztiak bezalakoak dira.

Argialetxe bat baino gehiagotan ezezkoa jaso zuen *Harry Potter and the Philosopher's Stone* liburuak 1997an. Azkenean argitaletxe txiki batek aldeko apustua egin zuen, eta liburuak bere bidea egin zuen umeen eta gazteen jolas-denboran.

Arrakasta ikusita berehala hasi ziren beste hizkuntzetara itzultzeko eskubideen bila, eta hurrengo urtean *Harri Potter*ren bigarren abentura kaleratu zuten: *Harry Potter and the Chamber of Secrets*. Ordurako ume asko zegoen horren zain.

Eta aspaldi gertatzen ez zena –inoiz gertatu ez dena?– berritoki gertatu da, 8 urtetik gorako gazteek telebista eta

PlayStationa itzali 270 orrialde-tik gorako liburua irakurtzeko, bat ere marrazkirik ez duen liburua irakurtzeko. Beste herrialdeetan hasi dira irakasleak eta pedagogoak fenomenoaztertzen. Ze du *Harry Potter*ek?

Gero, hirugarrena aterazen, baita laugarrena ere. Eta laster etorriko da pelikula, eta horrekin batera kontsumorik gogorrena: *Harry*ren makila, motxila, kapela, eta abar. Penagarria da hemengo gazte asko, liburua ezagutu gabe, sartuko direla pelikulak sortuko duen modan. Agian pelikula bera izango da liburura heltzeko bidea. Ez dut uste.

Liburua probatu nahi duenarentzat –eta ez dihardut gazteek soilik–, jakin ezazu hiru irakur daitezkeela euskaraz: *Harry Potter* eta *sorgin harria* eta *Harry Potter* eta *sekretuen ganbera*, dagoeneko liburu dendetan saltzen direnak; eta *Harry Potter* eta *Azkazabango preso*a Durangoko azokan salgai jarriko dena. Benetan diot: ez galdut!

**“Aspaldi gertatzen ez zena berritoki gertatu da, 8tik gorako gazteek telebista itzali 270 orritik gorako liburua irakurtzeko”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUENA, 6**  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUBAKOITZA, 7**  
PUY, Barrenkale 25. .... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 8**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- DOMEKA, 9**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 10**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 11**  
MOZOS, San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 12**  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46
- Ertzaintza .... 943 76 53 40
- Osasun etxea .... 943 76 24 40
- Asepeyo .... 943 76 16 43
- Pakea .... 943 76 13 49
- Anglozarko medikua .... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua .... 943 76 62 23
- Odol emailea .... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak .... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa .... 943 77 91 32
- Igerilekuak .... 943 76 20 51
- Kultura etxea .... 943 77 91 58
- Liburutegia .... 943 77 91 62
- Kiroldegia .... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaletgia .... 943 76 14 92
- Erregistroa .... 943 76 13 15
- Jardun .... 943 76 36 61
- Idolaz .... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara .... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea .... 943 76 26 85
- Bedelkar .... 943 76 04 68
- Akulu AEK. .... 943 76 05 18
- Udal euskaltegia .... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- Santa Marina** Domekak: 10:30.
- Domekak: **Labegarieta**
- 11:30, 13:00. Domekak: 11:00.
- Zapatuak: 19:00. **San Lorentzo**
- Lanegunak: 19:15. Zapatuak: 20:00.
- San Pedro** Domekak: **Angiozar**
- Domekak: 09:30, 12:30. Domekak: 11:30.
- Zapatuak eta lanegunak: 19:00. **Moja**
- Sierbak** **Zaharrak**
- Lanegunak: 19:30. Lanegunak: 8:00.
- Osintxu** **Mizpirualde**
- Domekak: 12:30. Lanegunak: 11:45.
- Zapatuak: 19:00. Zapatuak: 17:30.
- Elosu** **Antzuola**
- Domekak: 10:30. Domekak: 09:00, 11:30.
- Ubera** Domekak: Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
- Domekak: 10:30. **Uzarraga**
- San Juan** Domekak: 11:00. Domekak: 10:00.
- Eiorregi**
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
- Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro**
- Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**ESKI ETA MENDI MATERIALAREN AZOKA TXIKIA**  
Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako eski eta mendi materialaren azoka txikira-ko materiala abenduaren 5era arte jasoko da, 19:00etatik 20:30era, Pol-Polen bertan. Azoka txikia abenduaren 10etik 15era egingo da, aste barruan 19:00etatik 20:30era eta zapatuan 18:00etatik 20:00etara.

**ALARGUNEN BAZKARIA**  
Azken urteotako ohiturari eutsiz, alargunen elkarteko bazkideek bazkaria egingo dute abenduaren 8an, Sirimiri jatetxean. Bazkari-joateko interesa dutenek elkartean bertan eman dezakete izena.

**1977AN JAIOTAKOAK**  
1977an jaiotako bazkaria izango da abenduaren 22an jatetxean. Izena ematea Tito's tabernan egin daiteke, abenduaren 12ra arte.

**1951N JAIOTAKOAK**  
Joan den azaroaren 10ean 1951n jaiotako afarira joan zirenek argazkia eta egutegia Kiñu argazki dendan jaso ditzakete. Egutegian Gabonetako loteriako zenbakia azaltzen da. 1.000 pezetako txartelak dira.

**JARDUNEN AGENDA**

**ASTE BUKAERAKO AISIALDIA**  
Eguen arratsaldean eskulana egiteko aukera Kartzela Zaharrean, egubakoitzean mahai-jokoak, zapatuan euro txapelketa eta domekan mahai-jokoak.

**'BERGARA EZAGUTZEN'**  
Abenduaren 19an bukatuko da izena emateko epea. Argibideak Jardunen.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarretik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zublaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

Rafael Bereinkua irabazle Gorlako Igoeran

Rafael Bereinkua (MK 34 Formula Martini) izan zen 1991ko abenduaren 1ean jokaturako Gorlako VI. Igoerako irabazlea. Gorlako bidearen egoera txarra zela-eta, proba Angiozarren jokatu zen urte hartan. Lehen bergararra Iñaki Olañeta izan zen, bosgarren postuan.



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**

*"Lapikokua"*

Eltzekoa, lekale egosiak. *-Lapikokua jan ezker eztau besterik biar izaten.*



**ASTEKO FILMAK**


**'AMELIE'**

ZUZENDARIA: JEAN PIERRE JEUNET. AKTO-REAK: AUDREY TAOUTOU, MATHIEU KASSOVITZ.

**HARIA.** Ameliek irudimena eta errealitatea nahasten ditu askotan. Pertsonaia bitxiak tartekatzen dira filmean, eta umorea da nagusi.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Eguenean 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; egubakoitzean 22:30ean; zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**'Y TU MAMÁ TAMBIÉN'**

ZUZENDARIA: ALFONSO CUARÓN. AKTO-REAK: MARIBEL VERDÚ, GAEL GARCÍA BERNAL, DIEGO LUNA.

**HARIA.** Julio eta Tenoch gazteek Luisa ezagutuko dute familiar-teko ospakizun baten. Hirukoteak Mexikon zehar bidaiatzean ekingo dio, eta adiskidetasuna eta sexua tartekatuko dira.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades artoan. Eguenean, hilak 13, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ETXE PARE-BILINTX LIBURYDENDA**



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea edo bainugela berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu. Baita osagarrietan ere.

**Jakina, zurekin pentsatzen.**

**FAGOR**   
Sukaldeko altzariak

AENOR  
  
Produktu  
zertifikatua

**6**  
URTEKO  
GARANTIA

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



GOIENA/ Goienaren ustez, Udalaren ekarpenak nabarmen sendotuko du egitasmoa

# Udalak, Goiena Komunikazio Zerbitzuak lagunduko duela adierazi du alkateak

MONIKA BELASTEGI

Bergarako Udalak Goiena Komunikazio Zerbitzuetan parte hartuko du. Halaxe esan zuen iragan asteko osoko bilkuran Victoriano Gallastegi. Goiena pozik azaldu da, eta Udalaren erabakiak egitasmoa nabarmen sendotuko duela adierazi du.

Bergarako Udalak Goiena Komunikazio Zerbitzuetan parte hartuko duela adierazi zuen Victoriano Gallastegi alkateak joan den astelehenero osoko bilkuran. Erregu eta galderen atalean izan zen, Batasuneko zinegotziak Goienaren gainean itauntzean.

Alkateak esan zuenez, hainbat bilera izan ditu Goienako arduradunekin, eta dagoneko parte hartze hitzarmena adosteko zorian daude bi aldeak.

Hori horrela, Udalak Goienarekin izan duen jarrerak 180 graduko bira eman du. Gogoratuko duzuen, uztailaren 23ko osoko bilkuran, Victoriano Gallastegi adierazi zuen Bergarako Udalak ez zuela parte hartuko Goiena egitasmoan. Honako arrazoia eman zuen: EAJk eta EAK telekomunikazioen gainean plan orokorra diseinatzen zihardutela, EAerako telekomunikazioen gaineko plana, hain justu; eta Goienak ere planifikazio horretan sartu beharko zuela. Ildo bereetik, esan zuen, Udalak ez zuela Goiena diruz lagunduko.

Orain, aldiz, laguntzeko geru azaldu da. Victoriano Gallastegi alkateak BERRIGARari azaldu dionez, "ofizialki, abenduaren hasieratik Goienan gaudela esan daiteke. Sinadura botatzeko detaile txiki batzuk lotzea besterik ez da geratzen. Eta detaile horiek berehala lotuko ditugu. Ondoren plenora eramango dugu hitzarmena, han onartzeko".

Jarrera aldaketari dagokionez, atzera egin eta hautsa ateratzeak zentzurik ez duela azaldu du Gallastegi alkateak: "Ez dut atzera egin nahi; aurrera baizik. Batzuetan plan edo asmo batzuk



Argazkian, Goienaren aurkezpena egin zeneko irudia, aurtengo martxoan.

egon daitezke, eta plan horiek aurrera ez badute egiten erabakiak hartu beharra egoten da, eta une hori iritsi da. Ez noa atzera egitera, hori hautsa ateratzea

litzatekeelako, inongo soluziorik lortu gabe. Gu azterketa bat egiten hasi ginen, eta ez da gauzatzetik izan pentsatu bezala edo esan ziguten moduan. Horregatik

erabakiak hartzeko unea heldu da, eta hartu ditugu".

Bestalde, Alkateak adierazi duenez, Bergarako Udalak ez du erabaki Goienaren organo era-

bakitzaleetan parte hartuko duen: "errektore kontseiluan egoteari ez diogu garrantzi handirik ematen. Beharbada, laguntzaile moduan jardungo dugu, Goiena diruz lagunduz".

## BATASUNAREN IRITZIA

Batasuneko kideek ere orain izan omen dute Udalaren jarrera aldatketaren berri. Jolanda Juaristi Batasuneko zinegotziaren esanetan, "hori nahi genuen hasiera-hasieratik, Udalak hitzarmena sinatzea Goienarekin. Hala ere, bi urte aritu gara horren atzetik, eta akordioa sinatuta ikusi arte ez dut guztiz sinistuko. Juaristik gehitu duenez, bere taldeak ez du ulertzen zer aldatu den Udalak jarrera horrela aldatzeko: "Goienaren planteamenduak, duela bi urte eta gaur egun bera izaten jarraitzen du. Duela bi urte proposatzen zuena eta orain proposatzen duena gauza bera da. Beraz zertan egon da Udala bi urte hauetan? Herritar guztiak erabili gaitu, eta hori salatzen dugu".

Bestalde, "asunto guzti honetan izen propioa erabili behar da" Jolanda Juaristiren esanetan; izan ere "Victoriano Gallastegi alkatea ibili da honen guztiaren atzean; bere taldekideetatik inork ez du txintik ere esan".

## GOIENA POZIK

Goienako zuzendari nagusi Inaxio Arregik adierazi digunez, Goienarentzat oso garrantzitsua da oraingo akordioa: "Hasieratik beharrezkotzat ikusi zen Udalen parte hartzea, informazioaren mundua euskara hutsean lantzea ez delako gaurkoz, ekimen pribatuak laguntzarik gabe aurrera atera dezakeen erronka". Arregik erantsi duenez, "bere momentuan oso inportantea izan zen hasiera-hasieratik proiektua bultzatzea erabaki zuten Udalen ekarpena, eta orain, Bergara, Oñati eta Elgetako Udalak sartuta, Goiena egitasmoa nabarmen sendotuko da, eta horrekin euskarazko komunikazioak eta Debagoieneko herritar guztiok irabaziko dugu".

## GOITB etxe guztietan ikusiko dugu laster

Horixe da, Bergarako Udalak Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba laguntzeko hartu duen erabakiak, herritar guztioi ekarriko digun onuretako bat; GOITB herriko etxe guztietan eta egoki ikusteko aukera izango dugula, hain justu ere. Gaur egun herriko hainbat tokitan ikusten da, beste batzuetan ez, eta hainbatean ez oso egoki. Akordioarekin, Udalak eta Goienak, eskura dituzten baliabideak jarriko dituzte, telebista herri osoan era

egokian ikusi ahal izateko. Batzorde tekniko bat ere osatzekoak dira arazoak aztertzen hasi eta lehenbailehen irtenbidea emateko.

Beste onuretako bat, *Goienkaria* eta BERRIGARA izango dira. Udalaren laguntzarekin, egubakoitzero zuon etxeetako buzoian jasotzen jarraituko duzue *Goienkaria*, eta horrekin batera BERRIGARA, orain inoiz baino emankorrerago Antzuola eta Elgetako albisteekin.

**LOS CAZADORES**

943 76 48 08.  
Zubieta 26  
BERGARA

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**ETXAGI**  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**LAKET**


gizon & emakume

Barrenkalea 35  
BERGARA

**OILAGORRA**  
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA





ARTXIBOA

Enpresetan egingo dituzten 200 praktika orduez gain, eskolan ere beste 400 praktika ordu egingo dituzte.

GAIA/ Astelehenean hasiko dute Txirbil harroketa bidezko mekanizatu ikastaroa

## Hamabi langabaturendako lan aukera Miguel Altunan

MONIKA BELASTEGI

Hamabi lagunek ekingo diote Miguel Altuna institutuak eta Jaurlaritzako Lan sailak antolatutako Txirbil harroketa bidezko mekanizatu ikastaroari. Guztiak langabetuak dira, eta helburua, ikasturte amaieran inguruko lantegietan lan egiteko aukera eskaintzea da.

Astelehenean hasiko da Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak eta Miguel Altuna institutuak elkarlanean antolatutako Txirbil harroketa bidezko mekanizatu ikastaroa.

Ikastaroak oso helburu garbia du: langabezian dauden pertsonen lan munduan sartzeko aukerak eskaintzea, hain justu. Hori horrela, ikastaroan izena emateko baldintzek ere ildo bera jarraitu dute: batetik, langabezian ego-

tea, eta bestetik, inolako kualifikaziorik ez izatea. Ikastaroa hamabi lagunek hasiko dute, gizonen zein emakumezkoak, eta aurrez esandako bi eskakizun horiek betetzen dituzte.

Txirbil harroketa bidezko mekanizatuaren gaineko ikastaroa antolatzeako arrazoia lantegien eskarian datza, Pello Arrondo Miguel Altuna institutuko ikasketa buruaren esanetan. "Debagoieneko lan merkatuak duen eskari handiena da. Eta guk, ikastaro honekin, pertsona kualifikatuak eskainiko dizkiegu". Arrondok gehitu duenez, ekainean ikastaroa amaitzean, "lanean hasteko aukera asko izango dituzte kurtsoan aritu diren ikasleek, kontuan izanda, gainera, enpresetan praktikak egingo dituztela".

Horixe da, hain justu, ikastaroak duen ataletako bat; inguru-

ko enpresetan 200 orduko praktikak egitea. "Horrela, lantegian ezagutu egiten dute ikaslea, eta bestalde, badakite ikasle kualifikatua dela, euren beharretara egokitzen dena". Horren aurretik, baina, 100 ordu teoria izango dituzte eta beste 400 ordu praktika, biak eskolan.

### GERO ETA EMAKUMEZKO GEHIAGO

Ikastaroan hainbat emakume hartuko du parte, eta oro har Lanbide Heziketan gero eta emakume gehiagok parte hartzen duela aipatu du Arrondok. "Indar fisikoa ez da lehen uste bezain garrantzitsua. Trebetasuna eta kualifikazioa dira benetako garrantzia dutenak, eta enpresetan ere hori badakite. Eta, noski, hori emakumezko batek gizon batek bezain ondo egin dezake, mito asko apurtu dira zentzu horretan".

## LABUR

### FISC Gobernu Kanpoko Erakundeak etorkinen inguruko erakusketa egingo du

FISC gobernu kanpoko erakundeak etorkinak oinarri dituen erakusketa egingo du hilaren 13tik 15era bitartean. Erakusketa hogeita bost argazki inguruk osatzen dute; Donostian bizi diren etorkinen argazkiak dira ia guztiak. Antolatzaileen arabera, erakusketaren helburua, besteak beste, etorkinak eta euren bizitzeko moduak ezagutaraztea da.

Horrekin batera, hilaren 13an, hitzaldia eskainiko dute FIS-Ceko kideek, Kultura Etxean, 19:00etan. Hitzaldiaren izenburua "Nikaraguako egoera" da; eta erakundeak lau kide izango dira hizlari. GKE honek Bergarako Udalaren laguntza jasotzen du. Azken bi urteotan Nikaraguan umeendako eskolak eta emakumeendako tailerrak eraikitzen erabili dute jasotako dirua. Hitzaldian azalpen horiek guztiak emango dituzte. Bestalde FISC zer den azaldu eta eskuartearen dituzten proiektuak jakitera emango dituzte.

Azkenik, datorren zapatuan, hilak 15, Harreman, bidezko merkataritza postua ere jarriko dute San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara.

### Abenduaren 20an piztuko dituzte Maykolux enpresak jarriko dituen Gabonetako argiak

Maykolux SL enpresari esleitu dio Udalak Gabonetako argiteriaren ardura. Argiteriaren aurrekontua hiru milioi pezetakoa da, eta hilaren 20an piztuko dituzte argiak. Kendu, berriz, urtarrilaren 7an. Argiak piztearekin batera, udaletxean jartzen duten jaiotza ere irekiko dute.

Gabonetako argi apaingarriok ohiko tokietan jarriko dituzte: San Martin plazan, Bidekurutzetan, Espaloian, San Pedro kalean, Artekalean, Arruriagan, Fraiskoizuri plazan, Barrenkalean, azoka inguruan, herriko sarrera-irteeretan eta Angiozar, Osintxu, Elorregi, Ubera eta Elosu auzoetan.

San Antonioko sarreran, ohiko argizko arkuak jarri ordez, han dauden bi zuhaitzak apainduko dituzte, Gabonetako feriaren antolaketan egiten dutenek hala eskatuta.

### Yoga ikastaroetan parte hartzeko deialdia egin du Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak

Udalak yoga ikastaro berriak antolatu nahi ditu. Horretarako, gaur egun yoga ikastaroetan parte hartzeko zenbat jende dagoen interesatuta jakin nahi du. Beraz, yogan izen emateko interesa duen edonor, pasa dadila lehenbailehen Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzutik edota 943 779125 telefonora deitu.

### Herri barruko taxisten tarifa berriak onartu ditu Udalak datorren urterako

2002rako herri barruko taxisten tarifak onartu berri ditu Udalak. Horren arabera, honako tarifa berri hauek ezarriko dira datorren urtetik aurrera: egunez, banderak 398,52 pezeta balioko du, eta kilometroak, berriz, 124,2 pezeta. Bestalde, itxoinaldiak 2.392 pezeta balioko du.

Gau zein jaiegunetako tarifari dagokionez, banderak 398 pezeta balioko du, kilometroak 199,8 pezeta, eta itxoinaldiak, berriz, 3.758,4 pezeta. Gaueko tarifa hori 23:00etatik 07:00etara da, eta jaiegun eta domeketan egun osoan.

Tarifak berraztertu eta iguera ezartzea, AGITAX Gipuzkoako taxisten elkarteak udalerriri guztietan egindako eskaera da. 2000ko maiatzaren 8tik taxien arloak dituen kostuak izandako iguera da horren arrazoia.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09



## BANKINTER

**%3,5** etik aurrera mailegu hipotekarioan  
lehen 6 hilabeteetan

\*Irekiera  
komisioa:  
%1.  
35 urte  
bitartean

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*





## BERGARARRAK SORGINEN LARATZEAN

**S**an Martin ikastetxeko Gurasoen Elkarteak antolatuta, bergarar eta osintxuar mordoak egon ziren Sorginen Laratza saioan, joan zen azaroaren 21ean; 50 lagun egon ziren, guztira. Opari eta guzti joan ziren, gainera; Bergarako tostoi eta erreilenoak eraman zituzten saioko aurkezleentzat. Majo pasatu zuten saioa zuzenean ikusiz. Hona hemen, saioko aurkezle Xabier Euzkitze eta Klaudio Landarekin.



## CUENCAKO ARDOA DASTATZEN

**J**oan zen eguen iluntzean ardo dastatzea egon zen Gure Ametsa elkartearen. 30 lagun baino gehiago batu ziren bertan, eta Cuencako Huete herriko ardo dastatzeko aukera izan zuten. Francisco Uribe eta Celia Madero ardogileek era guztietako azalpenak eman zizkieten han elkartutakoei. Ondoren, afari ederra egin zuten, ardoz lagunduta.

## BERTSO-AFARIA KANTINAN

**G**orlako Kantinean bertso-afaria izan zen joan zen zapatu gauean. Neguan asteburuetan bakarrik egoten da zabalik, baina eskaintza polita egin zuten pasa den zapatarako. Asier Otamendi, Nerea Elustondo eta Asier Iriondo bertsolariak aritu ziren afalostea alaitzen. Jende mordoak elkartu zen afaritara, eta argazkian ikus dezakezuen moduan, ondo pasatu zuten, bai, zapatu gaua!



### KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. BERGARA  
943 76 02 57



Irala 3. Tf. 943 76 12 35  
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA

### GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8. BERGARA  
Tel. 943 76 31 02

### OGIZUN koop. elk. okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

### IRURAK PINTURAK S.L.


ERA GUZTIETAKO LANAK  
MOKETA ETA SINTASOLA  
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK  
HAREA ZORROTADA  
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32



943 76 20 61  
BERGARA



Ur-bide  
ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



FUTBOLA

# Bergarako preferente taldeak 5-2 irabazi zion Aretxabaletari zapatuan Agorrosinen

UDAr irabazi ondoren, mahoneroak sailkapeneko 9. postuan daude, Tolosa liderrarengandik 9 puntura

EDU MENDIBIL

**Mahoneroek garaipen inportantea eskuratu zuten Nieto bergararrak zuzentzen duen UDA taldearen aurka. Aretxabaletarrak lider izan dira hainbat jardunalditan, eta Bergarak denboraldiko emaitzarik onena lortu zuen zapatuan, zaleen gozamenerako.**

Aspaldian ez zuen Bergarak bost gol sartzen. Juanina Garairen jokalariek partidu ona jokatu zuten, eta merezimendu osoz eskuratu zituzten hiru puntuak. Partiduko 15. minutuan izan zuten etxekeok lehenbiziko gol aukera garbia: Xabi Arregi aurrelariak Gorka San Vicentek eginitako erdiraketa bat bikain errematatu zuen buruz, baina bere erremateak zutoinean jo zuen. 25. minutuan, epaileak Bergaren aldeko penaltia adierazi zuen, UDAko jokalaria batek baloia eskuarekin ukitu eta gero, eta Inigo Castelok partiduko lehen gola egin zuen. Lehen zatia amaitzeaz zegoela, partiduko jokaldi klabea izan zen. Oxel Erostarbe UDako atzelariak penaltia egin zion Arregiri golera errematatzera zihonanean, eta penaltia adierazteaz gain, epaileak jokalaria elgetarra kanporatu zuen. San Vicentek ez zuen hutsik egin, eta atsekenaldira bi goleko abantailaz



Ezkerreko argazkian, zutik, Xabier Zangitu eta Enrique Nieto. Makurtuta, Andoni Rodriguez eta Jon Sanchez. Eskumako argazkian, zapatuko partiduko irudi bat.



EDU MENDIBIL

joan ziren bergararrak. Aipatutako jokaldi horren ondorioz, UDak jokalaria bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuen neurketa bukatu bitartean, eta Bergarak ez zuen eragozpenik izan garaipena eskuratzeko.

### BOST GOL BIGARREN ZATIAN

Bigarren zatian Bergara izan zen nagusi, eta azken hogei minutuetan bost gol ikusteko aukera izan zuten Agorrosinera hurbildutakoek: San Vicentek egin zuen 3-0ekoa area txikian baloia jaso

eta UDako atezaina gainditu ondoren; Arregik 4-1ekoa korner jaurtiketa bat buruz errematzean, eta Oskar Maiztegik sartu zuen bergararren azken gola, 85. minutuan, area barrutik egindako jaurtiketa bati esker.

### BERGARARRAK ARETXABALETAN

Enrique Nieto UDako entrenatzaileak zelairatutako hamaikakoan hiru bergarar izan ziren zapatuan: Xabier Zangitu eta Jon Sanchez erdilariak eta Andoni Rodriguez aurrelaria.

## Senior saskibaloia taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da

E.M.

**Bergara KEko senior saskibaloia taldeak Gipuzkoako lehen mailara igotzeko fasea jokatu du urtariletik aurrera. Zapatuan, Bergarak, 119-51 irabazi zion Irun taldeari Labegarrietako Kiroldegian.**

Bergarak ligako azken partidua jokatu zuen zapatuan, eta David Urbina taldea uste baino errazago nagusitu zitzaion Iruni (119-51). Jokatuak sei partiduetatik bost irabazi, eta bakarra galdu dute bergararrek. Zapatuan 68 puntuko aldea atera zieten irundarrei markagailuan. Bisitariak oso eskas aritu ziren, eta erraz izan zuen Bergarak. Honako jokalariek kantxaratu ziren: David Urbina (29 puntu), Jesus Morais (17), Mikel Larrañaga (21), Iker Barbero (6), Ugutz Basauri (22) -hasierako boskotea-, Gorka Lagoma (4 puntu), Jorge Morais



Senior saskibaloia taldea zapatuko partiduen atarian.

(12), Aitor Ugarte (4) eta Iban Alonso (4).

### IGOERA FASEA URTARRILEAN

Esan bezala, Bergarak Gipuzkoako lehen mailara igotzeko faseari ekingo dio urtariletik aurre-

ra. David Urbina entrenatzailea oso pozik dago bere taldeak orain arte egindakoarekin: "ligan ez dugu inolako arazorik izan, eta gure helburua, igoera fasean lehen hiruren artean sailkatzea izango da".

PILOTA

### Muruamendiarazek Medinaren kontra galdu zuen (22-12)

Iker Muruamendiarazek 22-12 galdu zuen Fernando Medina mexikarraren aurka astelehenean Tolosako Beotibar pilotalekuan, bigarren mailako lau terdiko txapelketaren finalerdietan. Ikerrek bi partidu irabazi beharko dizkio Medinari finalerako sailkatu ahal izateko. Hurrengo partidua Errioxan, Fuenmayoren jokatu dute. Muruamendiarazek lehen partidua galdu zuen astelehenean. Medinaren aurka jokatu aurretik Del Rey eta Zabala kanporatu zituen. Beste finalerdiko lehenbiziko partiduan Badiola III.a 22-17 nagusitu zitzaion Iban Etxanizi, domekan Eibarko Astelena pilotalekuan. Bigarren mailako lau terdiko txapelketaren finala abenduaren 23an jokatu da. Txapeliduna lehen mailan arituko da datorren urtean.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Elgoibar**  
Lehen mailako gazteak. Eguena, 11:00. Ipintza  
**Bergara-Zestoa**  
Lehen erregionala. Eguena, 15:30. Agorrosin  
**Bergara-Mutriku**  
Neskak. Eguena, 17:15. Ipintza

### ESKUBALOIA

**Bergara-Arrasate**  
Senior mutilak. Eguena, 12:00. Kiroldegia.  
**Bergara-Arrate**  
Senior mutilak. Domeka, 12:15. Kiroldegia.

### PILOTA

**Gabonetako txapelketa**  
Egubakoitzean, abenduak 7, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

**Bergara 5 Aretxabaleta 2** (Preferente maila)  
**Aurrera Ondarroa 4 Bergara 0** (Lehen erregionala)  
**Aloña Mendi 0 Bergara 1** (Neskak)  
**Mondragon 2 Bergara 2** (Ohorez, gazteak)  
**Bergara 3 Eibartarrak 3** (Lehen mail, gazteak)  
**Bergara 1 Tolosa 3** (Ohorezko m. kadeteak)  
**Bergara 1 Aurrera Ondarroa 0** (2. mail, kadet.)  
**Urola 2 Bergara 1** (Infantilak)

### ESKUBALOIA

**Urnieta 13 Bergara 30** (Senior mutilak)  
**Bergara 16 Beasain 12** (Gazte mutilak)  
**Tolosa 18 Bergara 20** (Kadete mutilak)


### SASKIBALOIA

**Bergara 119 Irun 51** (Senior mutilak)  
**Easo 53 Bergara 35** (Gazte mutilak)  
**Legazpia 40 Bergara 38** (Kadete mutilak)

### PILOTA

**Zumarraga 14 Bergara 22** (Lehen mail, senior.)  
**Bergara 22 Oiartzun 7** (Senior banaka)  
**Donostia 3 Bergara 22** (Kadeteak)





Ainara Moreno harpa jotzailea eta Roberto Casado flauta jotzailea, hurrenez hurren.

Emanaldia bihar, eguena, izango da, 19:30ean

## Harpa eta flauta kontzertua osoko bilkuren aretoan

MONIKA BELASTEGI

Ainara Moreno harpa jotzaileak eta Roberto Casado flauta jotzaileak kontzertua egingo dute bihar Udaleko areto nagusian, 19:30ean. Biharko emanaldia Udazken Kultureko egitarauaren barruan dago eta doakoa izango da.

Ainara Moreno harpa jotzaile gasteiztarrek eta Roberto Casado flauta jotzaile iruindarrak egingo dute bihar arratsaldeko emanaldia.

Ainara Morenok harpako goi mailako titulua eskuratu zuen Bartzelonako Goi Mailako Kontserbatorioan. 2000. urtea ezker, lankidetzan dihardu Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Pablo Sarasate Orkestrarekin. Horrez gain, jo izan du Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbao Philharmoniarekin, Kordobako Orkestrarekin, Valladolideko Gazte Orkestrarekin eta Irungo Orkestrarekin, besteak

beste. Bestalde, bakarleri gisa ere hainbat kontzertu eman ditu, baita filmen soinu-bandetan eta hainbat CDren grabazioan parte hartu ere.

Roberto Casadok, berriz, Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen flauta jotzen, Begoña Agirre irakasle zuela. Horren ondoren, Frantzia, Landetako Musika Eskola Nazionalan ikasi zuen Hervé Hotierrekin eta Evreux-eko Emile Clerisse Musika Eskola Nazionalan Georges Alirol irakaslearen gidaritzapean.

Gaur egun, Pablo Sarasate Orkestraren lankide da, eta 1999a ezker bigarren flauta eta Picolo

**Ainara Moreno eta Roberto Casadok bikotekako zein bakarkako obrak eskainiko dituzte**

bakarleria Madrilgo Komunitateko Orkestran. Kontzertu ugari eman ditu -bakarlari gisa zein ganbera-musikakoak- Espainian, Frantzia eta Italian. Sariak ere hainbat jaso ditu, besteak beste, Frantziako flauta jotzaile gaztearen Estatuko lehiaketan lehen saria. Horrekin guztiarekin batera, musikagile askok eskaini dizkiote euren lanak, baita Robertok estreinatu ere.

### BIKOTEKAKO ZEIN BAKARKAKO LANAK BIHARKO EMANALDIAN

Bihar egingo duten emanaldian bikotekako zein banakako lanak joko dituzte.

Hauxe izango da biharko egitaraua: Glück-en *Orphée*, John Rutter-en *Suite Antique*, C. Salcedoren *Canción de la noche* (harpa bakarlarirako), J.A. San Miguelen *Ambitus para flauta sola* (erabateko estreinaldia), W. Lutoslawski-ren *3 Fragmenty*, Ibert-en *Entr'Acte*, G. Bizt eta F. Borne-ren *Habanera*, "Carmen"eko bariazioekin eta V. Monti-ren *Czardas*.

## Saxteiz saxofoi laukotearen saioa zapatuan pleno aretoan

MONIKA BELASTEGI

Saxteiz saxofoi laukoteak emanaldia egingo du zapatuan osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Entzule gehiengora heltzeko, errepertorio zabala egiten dute, jazz eta musika klasikoa, besteak beste.

Nahiko talde berria dugu Saxteiz saxofoi laukotea. 2000. urteko martxoan egin zuten lehenengo emanaldia jendaurrean -Vital Kutxa Fundazioak antolatutako *Astearte musikalak* zikloan-. Hala ere, lau gazteek eskarmentu handia daukate musikan. Besteak beste, honako orkestra hauetan aritu izan dira, beste batzuen artean: Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Euskal Herriko Gazte Orkestra, Jesus Guridi Orkestra, eta Bilboko eta Gasteizeko udal bandetan.

Ana Isabel Bravo, Jesus Cordero, Aitor Martin eta Rodolfo Noriega saxofoi jotzaileek osatzen dute taldea, eta entzuleen nahia asetzeko, egiten duten errepertorioa oso zabala da, musika mota asko tartekatzen dituzte emanaldietan: jazz, musika klasikoa eta musika garaikidea, esaterako.

### EMANALDIK BI ATAL

Zapatuko emanaldiak bi atal izango ditu. Lehenengoan honako obra hauek joko dituzte: H. Arlenen *Blues in the night*; L. Niehausen *Miniature jazz suite # 1*; *Enchantment*; S. Joplinen *Ragtime dance*; P. McCartneyren *Yesterday*, eta N. Auouben *Jazz suite*. Bigarrean: G. Gershwinen *Somebody loves me*; M. Moweren *This morning*; M. Oldfielden *The killing fields suite*, eta W.C. Handyren *St. Louis blues*.



Irudian, Saxteiz taldeko lau saxofoi jotzaileak.

## KULTURAPILULAK

### Erakusleiho lehiaketan parte hartzeko, astelehenerako egon beharko dute prest

Gabonetako erakusleiho lehiaketa abian dago. Hasiere baten, herriko merkataritza-denda guztiak hartuko dira aintzakotzat lehiaketan. Hortaz, ez dago aurrez izena eman beharrik. Hala ere, parte hartu nahi dutenek datorren astelehenetik, hilaren 10etik, hilaren 27ra bitartean izan beharko dituzte prest erakusleihoak. Eta, jakina, erakusleihoetan dendan bertan saltzen diren ohiko artikulak erakutsi beharko dira. Bost sari banatuko dituzte, bostak berdinak: hogeita bost mila pezeta eta garaikurra. Irabazleen izenak abenduaren 21ean emango dira aditzera.

DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

## ZUHAIZTI TABERNAREN OHARRA

Zuhaizti tabernak bere bezeroei jakinarazten die  
abenduaren 17tik urtarrilaren 4ra  
oporregatik itxita egongo dela.  
Ondo pasa ditzazuela Gabonak!

Zuhaizti taberna  
Espoloia 6. 943 76 59 22.

GARRAIOAK  
ANDUZU  
TRANSPORTES


BERGARA  
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztiakoko kargak





**OKENDO  
KIROLAK**



Maalako arrabala 13-behea • **ARRASATE** • Tel.: 943 79 92 76





BERGARA  
**Nerea Agirrezabal**  
9an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Izaskun Arriola**  
12an 7 urte. Urte askotarako!  
Luken, etxeokak eta lagunak.



BERGARA  
**Dorleta Narbaiza**  
13an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Nerea Fernandez**  
12an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



BERGARA  
**Iker Moreno**  
8an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Unai Egaña**  
7an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Kepa Aitola**  
8an urtebete.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Ander Etxebarriarteun**  
6an 8 urte. Zorionak!  
Lehengusu-lehengusinak



BERGARA  
**Inma Garcia**  
11n urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Lagunak eta familiakoak.



BERGARA  
**Jon Arrillaga**  
13an 12 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Roberto Padilla**  
12an 33 urte. Zorionak!  
Joseba eta Miren (tarta goxoa erosi!).



BERGARA  
**Petra Castelo**  
6an 71 urte.  
Urte askotarako!  
Iloba Maika.



BERGARA  
**Unai Rodriguez**  
11n 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Irati Cuevas**  
13an 12 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Alazne Roman**  
9an 8 urte. Zorionak!  
Iokin, Amagoia, Asier eta etxeokak.



BERGARA  
**Irati Elortza**  
8an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Endika Gardoki**  
13an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Enrike Gardoki**  
13an 36 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Mireia Arana**  
5an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Julen anaia.

## BABESLEA

Sabonetako opariak egiteko...



**ERREBELATUAK** Album bat, Kopia index-a eta erroilu bat opari.  
**ARGAZKIGINTZA DIGITALA** eta oro har argazkigintzaren inguruan behar duzun material guztia.

**ZERBITZU DIGITALA** Erretratu zaharren eta bestelako konponketak, fotomuntaiak eta abar...

**ESKANER ZERBITZUA** Argazki, diapositiba edo gardenkiak eskaneatzeko bidea. Curriculumerako, Internetarako, eta abar...

**KOPIA DIGITALAK** Artxibo informatiko batetik. (Disketea, optikoa, zip-a, CD rom-a...)



ARGAZKI • Barrenkalea 16 • Tel. / Faxa: 943 76 20 66

## Adi!

Hurrengo zenbakian, **abenduaren 14tik 20ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**Zatoz**  
urte bukaerako  
**deskontuak**  
aprobetxatzera!\*

\*500.000 pezetarainoko deskontua, modeloaren arabera. Gaur bertatik hasita, bi urteko bermea km mugarik gabe.



Olabarrena auzoa • 943 76 33 44 • BERGARA

OPEL



Sukaldeak.  
Horma armairuak.  
Neurrira egindako  
altzariak.  
Ateak eta leihoak.  
Arozlanak.

BERGARA. 943 76 58 86

PINTXO eta BOKADILLOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**Ion Murgizu**

Orotariko pintura  
Iztukuak  
Papereztatzeak  
Imitazioak

Esosia etorbidea 24, 2. behe  
**SORALUZE**  
943 75 13 24 / 652 777 030  
iion@euskalnet.net

Lepoan hartu ta  
segi aurrera



**ARRANO**  
Taberna  
Kruz Gallastegi. BERGARA.  
943 76 02 54

**GOIERRI**  
AUTOGIDARIEN ESKOLA




Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZBAR

Zein da 1968an San Lorentzon sortu zuten elkartearen izena?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Haritz amerikarra

Quercus rubra

MAITANE ARIZABAETA

Hogeita bost metro har dezakeen zuhaitz hostozabala. Enborra zuzena eta leuna du, nahiz eta adinarekin zartatu. Hostoak erorkorak eta obatuak dira eta udazkenean kolore gorri ikusgarriaz apaintzen dira. Fruituak, ezkurak, udazken aldera heltzen dira.

Jatorriz Ipar Amerikako espeziea izan arren, Euskal Herrian ere hedatzen ari da. Hemengo haritzak baino azkarrago hazten denez, estimazio handiagokoa da, birpopulaketa ekonomiaren aldetik begiratzen denean. Baina azken urteotan, zenbait lekutan arazoak ematen dabil, txankroa izeneko gaixotasuna azaldu baitzaio.

Bergarako parke eta kaleetan apaingarri gisa ere ikus daiteke haritz amerikarra, hilerri ondoan eta Usondo parkean, esate baterako.

Egurra beste haritzenak baino kalitate eskasagokoa da, baina tanino ugari dituenaz, batzuetan larrua ontzeko erabilia izan da. Kupelak egiteko ere erabiltzen da, nahiz eta ardorik onena hemengo haritzekin egindako kupeletan zahartzen dena izan.

*“Egurrak tanino ugari dituenaz, batzuetan larrua ontzeko erabili izan da”*



EDU MENDIBIL

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibako zuzendaria?

- A/ Mikel Irizar.
- B/ Inaxio Arregi.
- C/ Estepan Plazaola.

2.

Saxteiz taldeak zapatuan eskainiko duen *Somebody loves me* konposizioa, norena da?

- A/ Gershwin-ena.
- B/ McCartney-rena.
- C/ Oldfield-ena.

3.

Zeinen aurka galdu zuen Iker Muruamendi araz pilotariak astelehenean?

- A/ Zabala.
- B/ Del Rey.
- C/ Medina.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

XABIER BERASATEGIrendako izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Xabierri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Mahasterrrekan eta eskumakoa Artekalean / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Delfin otarrainskak

32-48ko kaja (2 zenbakia), 800 gr.

11,57 €

1.925 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala 5  
BERGARA  
943 76 53 09

BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA Ibargarai 3. 943 76 97 97  
LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65.



# Kontuola

ANTZUOLA / Eguaztena / 2001eko abenduaren 5a / 93. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Diputazioaren proposamenaren zain dago Udala, errepidean hobekuntzak egiteko

AINTZANE IRIZAR

Irailean, Diputazioko errepide saileko arduradunak Antzuolan egon ziren errepidearen egoera aztertzen. Udalak esaten duena onartu zuten: errepidea arriskutsua dela, eta zerbait egin beharra dagoela. Orain, Diputazioaren erantzun ofizialaren zain dago Udala.

Udala aspalditik dago Diputazioko errepide arduradunekin harremanetan, Antzuolatik pasatzen den errepideak sortzen duen arriskua dela eta. Errepide hori ez da trabesiatzat hartzen, eta trabesia izendatzea da, hain zuzen ere, Udalak eskatzen duena. Trabesiatzat hartzeak, abiadura muga jaistea ekarriko luke, eta arriskua gutxituko litzateke.

Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, herriarekin lotuneetan hainbat hobekuntza egin beharra dagoela uste du Udalak, eta halaxe azaldu dio Diputazioari ere. Batez ere, Lapatza pareko lotunea jotzen du arriskutsutzat Udalak, baina baita Goizper parekoa, Beheko auzokoa eta futbol zelairakoa ere. Sagasti auzotik egiten ari diren errepiderako lotunea ere



Sagasti auzotik egiten ari diren lotunea ere kontuan har dezala eskatu diote Diputazioari.

kontuan har dezatela eskatu die Diputazioko arduradunei.

Arriskua sortzen duen beste puntu bat, eta garrantzitsuenetakoa, Errekalde pareko zebra

bidea da Udalaren iritziz. Izan ere, kotxeak abiadura handian etortzen dira, eta jende asko ibiltzen da, gainera, paseatzen inguru horretan.

### DIPUTAZIOAREN IRITZIA

Irailean 27an egon ziren Antzuolan Diputazioko teknikariak, tartean, Iñigo Zufiria errepideen mantentzerako arduraduna. Horre-

*Diputazioaren ustez, zati bat baino ezin da trabesiatzat jo, gainerakoa saihebideta da*

la, bertatik bertara ikusi zuten zein den errepidearen egoera.

Iñigo Zufiriaren esanetan, "proposamen zehatz bat prestatzen ari gara momentu honetan". Zufiriaren eta Diputazioaren ustez, "errepidearen zati bat besterik ezin da trabesiatzat jo, Errekaldeetik Goizperreko lotunearen ingurunea artekoa, hain zuzen". Gainerako guztia saihebideta omen da, eta badirudi saihebidetaz izaten jarraituko duela.

Errekalde pareko zebra bideari dagokionez, Diputazioko arduradunek gune hori hobetu beharra dagoela onartzen duten arren, oraingoz, behinik behin, ez daukate hori konpontzeko proposamenik.

Dena dela, oraindik ez dute Diputazioko arduradunek proposamen ofizialik egin.


### HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

## Kalean gora, kalean behera

Joan zen asteko astelehenean zorigaiztoko istripua gertatu zen Antiguan. Kamioi bati errubera bat askatu, eta abiadura bizian joan zen kalean behera. Haurra besoetan zeukan emakume bat jo zuen, baina bete-betean harrapatu ez, zorionez, eta zauri txiki batzuk baino ez zizkion eragin andreak. Zorigaiztoko istripua izan zen, edozein lekutan eta edozein gerta dakioketena. Halere, agerian utzi du arazo bat. Oso kamioi handiak ibiltzen dira herriko kaleetan, Kalebarrenen, Beheko Auzoan eta Antiguan. Eta horiek, ahal den

heinean behintzat, kaleetatik kanpo behar lukete. Industrialdeak, Antzuolako lantokiak soluzioa izateaz gain, arazo hori ere konponduko luke. Gero eta ibilgailu astunagoak ikusten dira haruntz eta honuntz, fabriketara bidean.

Antzuolako kaleetan, dena den, bada beste arriskurik belozidarearen erruz. Zenbait auto, zenbait gidari, azkarregi ibiltzen da, oinezkoak, uste



**"Aguazilak ez du ezergatik isunik jartzen"**

baino arrisku larriagoan jartzen dituela. Duela urte batzuk emakume bat hil zen Kalebarrenen, autoa espalaira igo eta azpian hartu ondoren. Azeleroi eta errubera hots dezente entzun da azken hilabeteotan, eta duela bi aste auto bat markatuta azaldu zen goizean, gauean norbaitek atzetik jo eta gero. Bere lekuan zegoen hura, geldirik.

Aguazilak ez du isunik

jartzen, ez bizkorregi ibiltzeagatik, ez autoa gaizki uzteagatik, ezta ezergatik ere. Hauxe da erosoena guztiontzat, berarentzat zein gidarientzat. Inorekin ez haserretu, eta kito. Gero, zerbait gertatzen bada, buruari hazka egin eta aurrera. Antzuolan, gainera, lasai asko ibiltzen gara guztiok, bide erditik zenbaitetan, eta horrek areagotu egiten du arriskua. Dena den, istripuak, bakan batzuk badira ere, gertatu egiten dira, eta norbaitek neurriak hartu behar lituzke, berandu izan baino lehen. Baten batek izango du bada Udalean, kaleko zirkulazioaren ardura?

### LABUR

## AHTaren aurkako sinadurak batu zituzten zapatuan

Joan zen zapatuan, abenduak 1, sinadurak batzeko eta informazioa zabaltzeko mahai bat jarri zuen Antzuolako AHTren aurkako taldeak. Kalebarrenen egon ziren taldeko kideak, herritarren atxikimendua lortzeko sinadurak batzen. Abiadura Handiko trenaren aurkako banderak ere saldu zituzten.

Antzuolako batzorde hau aurtengo udan sortu zuen herritar talde batek, eta orain arte egin dituzten bilketetan sinadura ugari batu dute.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA ..... 943 78 71 57  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Medikua ..... 943 76 62 23  
Praktikantea ..... 943 76 63 80  
Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 76 53 40

### UDALA

Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Liburutegia ..... 943 76 60 65

### BESTELAKOAK

Idolaz ..... 943 78 60 12  
Herri ikastetxea ..... 943 76 62 68  
Jubilatuaren elkarte ..... 943 76 62 71  
Abadetxea ..... 943 76 64 16  
Anelkar (Kontxi) ..... 943 78 70 65  
Taxiak:  
Antonio Fernandez ..... 669 15 65 40  
Jesus M. Fernandez ..... 607 31 85 60

## MEZAK

### ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30  
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

### UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

## OHARRAK

### INDEPENDENTZIA EGUNA

Datorren egunean, abenduak 12, 372 urte beteko dira Antzuolak independentzia lortu zuela. 1629. urtean izan zen hori. Urtero bezala, hori ospatzeko jaia antolatuko dute aurtengoan ere. Baina, azkeneko urteetan moduan, urtarrilean izango da, abenduan frontoia ez delako erabiltzeko moduan egoten. Antolatzaileak lanean hasi dira dagoeneko, eta laster jakin ahal izango dugu noiz izango den ospakizun egun hori.

### FINALAK ERABAKITA DAUDE

Zapatuan jokatu zituzten herriko pilota txapelketako bigarren mailako finalerdiak; erabakita geratu da, beraz, finala zein bikoteek jokatu duten. Iparragirre-Sanse eta Larrea-Aranguren bikoteek, hain zuzen ere. Lehen mailakoa, berriz, Aranburu-Lizarralde eta Arbulu-Mendizabal bikoteek.

## BASERRIZBASERRI/ Galardi



**VASCONGADOS TRENBIDEAREN ALBOAN** Kaletik pare bat kilometrora dago Galardi, garai batean Zumarragatik Bergarara zihoan Vascongados zeritzan trenbidearen ertzean. 1391ko lehen aipamenaren arabera, Sancho Martines Galardy bizi zen hantxe. 1854. urtean berreraiki egin zuten baserria. Gaur egun, familia bakarra bizi da Galardin, nahiz eta bi etxebizitzako baserria izan; Timoteo Guridi, Maria Jesus Elezpuru, Jabier Guridi, Ana Loidi eta euren bi seme-alabak, Auritz eta Maialen. Alboko etxebizitzan bizi ziren Elgarresta-Aranes sendikoak, auzoko Basalde errotako eta Basalde indarretzeko promotore-etako batzuk ere izan ziren. /AINTZANE IRIZAR/ ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN. 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

## BOTEPRONTOAN/ Florentino Lamariano · Ahate zaintzailea

*“Hontzak emoten dost neri lan gehixen, txita jaioberrixak hartu eta eroan egitten dittu-eta”*

**O**gia saltzen jarraitzen dute Antiguako errotan, baina erretirata dago Florentino. Baserriko lanak egin eta ahateak zaintzen ditu.

**Okina izandakoa zara. Orain, egiten duzu etxean ogirik?**  
Ez; egunen baten igual egitten dot, kapritxua sartzen bajat.

**Erretirata zaude, baina, lanean jarraitzen duzu.**

Bueno, lanian-edo; oraingo nere lanak entretenigarri dira: ortua daukat, frutak be bai...

**Ahateak ere zaintzen dituzu.**

Bai; gure etxe aurrian parkia egin zanian, estankeko ahatak neuk zaintzia proponidu zosten, eta onartu egin neban.

**Zein zainketa behar dute?**

Lan haundixena hontzak

emoten dosku, txitak hartu eta eruan egitten dittu-eta. Gero, ba, horixe, jaten emon-eta; lan haundirik ez doste emoten.

**Zenbat ahate daude?**

Hamasei bat-edo.

**Herriko umeak etorriko dira ahateak ikustera, ezta?**

Bai; udan lan gutxiago edukitzen dot ahatei jaten emoten, umiek emoten jaue-eta: gusanituak, ogixa... Jubilauak be etortzen dira jaten emotera.

**Errota martxan daukazu.**

Bai; orain dala urte batzuk konpondu eta martxan jarri neban; umiak eta bestelako taldiak etortzen dira ikustera. Eta ezagunek, noizian behin, eskatzen doste artua xehetzeko, baiña kapritxo basterik ez dot erabiltzen.



## ANTZUOLAKOHIZKERAN

### ESAMOLDEA

#### • ARDI GALDUA BEZELA IBILLI

Bakarrrik, lagun barik ibiltzen den pertsonari buruz esan ohi da.

*Txomin beti ardi galdua bezela ibiltzen da.*

### ATSOTITZA

• **Obispo itteko lenengo monagillua izen bihar da.** Ezer ez dela berez jakiten esan nahi du. Baita ere, hasieratik ez dela dena lortzen, poliki-poliki lortzen direla gauza guztiak.

### HITZAK

#### • JAIXO

Txukuna. *Mozkor-mozkor egindda, jaixua zeguan, haura zeguan egotekua! / Jaixua zeguan haren etxia! / Dana lokatzaz egindda jaixuak zebitzen!*

#### • KARRASKARA

Eztarria garbitzean ateratzen den hotsa, edo eztarria garbitzea. *Hik dabik karraskarak, atzo gabian juerga galanta botata, ala?*

*Jone Larrañagaren*

*'Antzuolako hizkera' liburutik*

**Antzuolako txokorik politena zein da?**

Neure etxeaurria.

**Zer aldatuko zenuke herrian, zure esku balego?**

Guarderixiak falta egitten dabela pentsatzen jat, gero eta ume gehixago dago-eta.

**Gabonetan loteria tokatzen bazaizu, zer egingo duzu?**

Tenerifera alabia bisitatzera juan-edo...

**200 milioi pezeta tokatzen bazaizu, zenbat euro tokatuko zaizkizu?**

Uff! Horretan oso berde nago... Kalkuladoriak segittuan etarako neuke kalkulua.

**Zer eskatuko diozu Olentzerori?**

Osasuna eta herri honetako problema danak konpontzia.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**Igor eta Txomin**



**Margoak orokorreen**

ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164

*Tomas Gezalaza*

**Apainketarako eta industriarako pinturak**

**Paper margotuak**

**Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**

taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

*Tomas Gezalaza*

**Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa**

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA



# Goibekokokale

ELGETA / Eguaztena / 2001eko abenduaren 5a / 78. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com


## Goibeko Kultura Elkarteak batzar orokorra egingo du abenduaren 13an

OXEL EROSTARBE

Abenduaren 13an, Goibeko Kultura Elkarteak batzar orokorra egingo du kultura etxean, gaueko 21:15ean. Besteak beste, GOIBEKOKALE, Goiena Telebista eta Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua landuko dituzte bazkideek batzarrean.

GOIBEKOKALE argitaratzeaz arduratzen den elkarteak dugu Goibeko Kultura Elkarteak. Duela bi urte sortu zen elkarte eta gero eta gehiago dira, GOIBEKOKALE, *Goienkaria* eta GOITB bultzatu nahian, elkartean izena eman duten bazkideak.

Batzar garrantzitsua izango da abenduaren 13an, Goibekokokak batuko dituen batzarra, hain justu. Izan ere, batzarrean landuko dituzten gaiak esanguratsuak dira: alde batetik, Espaloia Kafe Antzokiaren gaia dago; Espaloia antzokiari bizitasuna emateko, Goibekok egindako proposamenaren inguruan dauden azken berriak azalduko dituzte talde eragilekoek datorren eguean kultura etxean egingo duten batzarrean.



Goibekokokak iaz egin zuten batzar orokorrean Espaloia Kafe Antzokia bultzatzea erabaki zuten.

### LASTER IKUSIKO DA TELEBISTA

Batzarrean landuko duten bigarren gai nagusia GOITB Elgetan noiz ikusiko den izango da. Bai Goibeko Kultura Elkartetik bai

Udaletik esan digutenez, laster sinatuko dute Goienak eta Udalak telebista herrian ikusteko akordioa. Patxi Basauri Elgetako alkateak adierazi digunez,

datorren urteko aurrekontuetan telebista herrian ikusteko Udalak izango dituen gastuak ordaintzeko partida egongo da. Gero eta gertuago dago, hortaz, telebista.

*Bigarren urtean gorantz egin du Goibeko Kultura Elkarteko bazkide kopuruak*

*Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua izango da batzarreko gai nagusietakoa*

*Datorren urteko aurrekontuetan telebistako gastuak kontuan hartuko ditu Udalak*

### HERRITARREN HITZA / Dani Gillegi • Basogintzako ingeniari teknikoa

## Ze euskera Goienkarian?

Honako hau GOIBEKOKALE berrian idazten dudana lehenengo aldia da. Elgetan arima gutxi bizi gara eta gehienek aspaldi galdu zituzten beraien hezur eta haragia; beraz, orrialde zati hau betetze aldera, nigana jo, eta nik baiezkoa eman diot.

Aurretiaz bi aldiz idatzi izan dut lehenengo GOIBEKOKALEn, natura eta ekologia gaitzat hartuta. Gaurkoan beste gai batekin natorkizue.

Edozer gauza idazteko, nahiz eta huskeria bat izan, alboan beti hiztegia behar izaten dut. Nola esaten da hau euskeraz? Eta idatzi? Honi

gramatika arazoak gehitzen zaizkio; aditza amaieran, hasieran, bietan ondo... Beraz, lerro ziztrin bat osatzeko denbora mordo bat pasatzen dut, azkenean gaizki idazteko.

Orain arazo berri bat batu zaie aurreko denei. Hasiera-hasieratik joan izan naiz ikastolara eta bertan egon UBI bukatu arte. Txikitan irakatsi zigun Lupe andereñoak euskera batuaren



**“Batua, denok ulertzeko sortua izan zena, ulergaitza izaten da sarritan”**

lehenengo zertzeladak. Umetan batuaz ikasitako lehenengo esaldia *Komunera joan al naiteke?* izan zen. Lau hitz horiek, bata bestearen ondoan zuzen jarrita, kristoren hotza egiten zuen gelara joateko baimena ematen zuten. Garai haietan euskera batu bakar bat zegoen, nik estandarra deitzen

diodana. Gaur egun, ordea, batua ugaritu eta askotan ulertezin bihurtu da: iparralde-

ko euskera batua, Gipuzkoa-koa, mendebaldekoa... Batua, euskaldun denok elkar ulertzeko sortua izan zena, makina bat bider ulergaitza da. Zer esan nahi dudana jakiteko, iparraldeko idazle batek artikulua idazten duenean *Euskaldunon Egunkaria* erosi besterik ez duzue. Arazoa ez da hemen bukatzen. Gaur egun, euskalkien idatzizko presentzia gero eta handiagoa dugu. Baina hemen ere sekulako nahasmasa: euskalki estandarra, azpieuskalkia, bailarakoa, herrikoa... Nire galdera: *Goienkariarako* ze euskera erabili bihar da?

### LABUR

## Gabonetako bolo txapelketa hasiko da barikuan

Barikuan, Gabonetako bolo txapelketa hasiko da, gaueko 23:00etan.

Lau joko-aldi izango ditu aurtengo txapelketak. Barikuan izango da lehenengo eta abenduaren 15, 22 eta 29an izango dira gainerakoak.

Lau joko-aldi horietan erregularrena izango da txapelketa. Hala ere, aldi bakortzean txirilo gehien botatzen dituzten lauren ere izango dituzte sariak. 500 pezetan ordaindu behar dira txapelketan parte hartzeko.



**ELKARRIZKETA**

**PATXI BOUZAS/DEFENTSA PERTSONALEKO IKASTAROKO ARDURADUNA**

*“Eraso baten aurrian hartu biharreko jarrera landuko dogu ikastaruan”*

O.E.

**G**aztetxiak antolatu daban defentsa pertsonaleko ikastaroko arduraduna da Patxi Bouzas elgetarra. Hainbat urtetan karate egiten jardun eta gero, berai dago orain, eraso baten aurrian zelan defendatu irakastia.

**Zuk emango dozu defentsa pertsonaleko ikastarua, zein da ikastaruaren helburua?**

Helburua, ikastaruan parte hartzen daben danek, euren kontra eraso bat izan ezkererantzuna prest edukitzia da. Oin dala urte batzuk karate egiten arritu nintzan, orduan ikasitako teknikak landuko dittugu ikastaruan.

**Zeini zuzenduta dago ikastarua?**

Ikastaruan edozeinek hartu leike parte. Neska, mutil, edadeko jende edo eta gaztientzat ikastarua interesgarria izateko asmua daukagu.


**Kirol pixkat egitteko aukera be izango da?**

Bai, alde batetik autodefentsarako teknika desberdiñak landuko dittugun arren, kirola egitteko aukeria emoten dau ikastaro honek. Kontuan izan bihar dogu, landuko dittugun teknikak gorputza lantzia eskatuko dabela.

**Zeintzuk dira ikastaruan landuko dittuzuen teknikak?**

Autodefentsarako ikastarua danez, eraso bati aurre egitteko teknikak landuko dittugu. Erasua era desberdiñekua izan leizkela kontuan hartuta, aurre egitteko teknika desberdiñak landuko dittugu. Erasoa desberdiñei emon biharreko erantzun egokixena zein dan ikastiaz gain, erlajatzeko teknikak be landuko dittugu. Azken batian, karate eta *kung fun* erabiltzen diran teknikak lantzen ahaleginduko gara ikastaruan.

**Zein da eraso baten aurrian defentsarik egokixena?**



O.E.

*Autodefentsarako teknikak lantziaz gain kirola egitteko aukera aproposa da ikastarua*

Adittuek esaten dabenez, eraso baten aurrian egokixena, ahal izan ezkererantz, ihes egittia da. Gertatzen da, sarritan ez dala izaten ihes egitteko aukerarik. Ikastaruan, holako kasuetan izan biharreko erantzun egokixenak lantziaz gain, erantzun hori neur-

*Eraso baten aurrian izan biharreko erantzuna, bihar dan modukua izatia landuko dogu*

tutakua eta zentzuzkoa izaten erakutsiko dogu. Erasuari erantzuna emoteko aukera izan ezkererantzun hori kontrolautakua izaten erakusteko ahalegiña be egingo dogu. Erasoa bati emon biharreko erantzuna, ezin da eta erasua bera baiño gogorragua izan.



**Iban Arantzabal saritua Donostian**

Iban Arantzabalek, Kutxak antolatutako gazte enpresa sustatzaile lehiaketan lehenengo saria jaso zuen aurreko bari-kuan. Donostian egindako sari banaketan, 5 milioi pezetako saria jaso zuen Ibanek, MPHiru management, euskal taldeen promoziorako ideia berritzailearen inguruan, aurkeztutako proiektuarekin./O.E.



**Pagoa erori da Asentzioko ermitan**

Azaroaren 10ean egindako elur eta haizearen eraginez, Asentzioko ermita gainera eroritako pagoaren subasta egin zuten atzo eguerdian bertako auzokoek. Subastatik ateratako dirua, ermitan gertatu diren kalteak ordaintzeko erabiliko dute. Pagoa subastan hartu duenak, hilabeteko epea izango du erretiratu eta ingurua garbi lagatzeko./O.E.

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**Uriburu UTEK saltzen du:**  
Domingo Iturbe kalean  
**ETXABE KOMERTZIALA**  
Etxe berrien azpian  
**PREZIO INTERESGARRIAK**  
943 76 11 23  
670 781 759

**OSTATU JATEXEA**

•Eguneko menua 800 pzta.  
•Karta.

Gudarien Bide, ELGETA  
Tel: 943 76 80 23

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**



## ERRETRATUZAHARRA

Ozaetako  
lagun taldea,  
1946. urtean

**O**raingo asteko erretratu zaharra 1946. urtekoa da. Ozaetan ateratakoa da, Andres tabernaren ondoan hain zuzen ere. Argazkian ageri den ingurua ez da asko aldatu: gaur egun ere antzera dago leku hori. Ezkerraldean, Andres taberna zabalik zegoen orain dela gutxira arte, eta atzean ikusten diren eskailerak ondoko etxeetara igotzeko erabiltzen dituzte auzokideek.

Argazkian agertzen direnak Ozaetakoak dira guztiak. Berrogeita hamabost urte igaro dira ordutik. Esther Arrondok emandako informazioaren arabera, erretratuan agertzen direnetaatik lau bakarrik bizi dira: Julio Simon Zabaleta (zaharrena, gaur 88 urte dituena), Antonio Aizkorrialde, Andres Azkargorta eta Jesus Mari Ilarduia.

Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Carmelo Arrieta "Bizkai", Santi Iriarte (eskaileretan), Andres Azkargorta (mutikoa), Julio Simon



Zabaleta, Benito Arrondo (bizikleta gainean) eta Antonio Aizkorrialde.

Jarrita: Mariano Mujika "Beteixo", Serapio Ilarduia eta Jesus Mari Ilarduia (Serapiok besoetan duen haurra).

Argazkia: Esther Arrondo.

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako Kultura Etxera. Zain gaituzul!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Cinema  
Vergararen  
lekuan, etxeak


**A**skok eta askok gogoan izango dute gaurko Burdiñateko etheen tokian zegoen Cinema Vergara. Sasoi batean hiru zine areto izan ziren zabalik batera Bergaran: aipatutako Cinema, Irala aretoa (hiruretatik handiena) eta Novedades.

Cinema Vergararen ondoan Alkorta okindegia zegoen, gaurko Konde panaderokuaren tokian hain zuzen.




± 1980

Cinema Vergara. Técnicas de difusión irakur daiteke. 1978 urtearen inguruan itxi zuten (Udal Agiritegia, Josune Narbaiza).



2001

Esan bezala, 1980ko hamarkadan etxeak eraikitzen hasi ziren zine aretoa zegoen tokian. Ingurua erabat aldatu da ordutik.



**Manufacturas  
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinalaztapena
- Jantziak

Leizeaga 1. BERRIGARA  
Tf. / faxa 943 76 59 53.

**Zuri Beltz  
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma

Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

Bergara



**zumelaga**

JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERRIGARA. 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERRIGARA



## Etxerako ederrena, Zanguitun



Koloreak  
sortzeko  
makina  
Paretetarako,  
zorurako,  
altzariak  
margotzeko...

Eskulan eta arte  
ederretako  
produktuak ere  
baditugu!



### ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.  
Tel.: 943 76 19 54.

### IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.  
Tel.: 943 79 11 71.

### deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.  
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea\* Sintasola\* Moketak\*  
Paper pintatuak

\*Salmenta eta etxean ipintzea.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak  
Edredoiak Kortinak Toailak Izarak

## Era guztietako azulejoak eta zoladurak, Gelatzun



gelatzun s.l.

Zubillaga auzoa, 1.  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22,  
Faxa: 943 78 15 51



# GRUPO **RKUZ**

1950-2001



**ETXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



**RKUZ**  
ALTZARIAN


Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



**RKUZ**  
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

**expert**



**RKUZ**  
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

**FAGOR**

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**